

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Mari Bereziartua Lizarza

*Donostia,
Gipuzkoa
(1927)*

Aurkibidea



Biografia



Donostiarra, Antiguako Txokolatene baserrian jaioa. Sagastizar zen baserriaren benetako izena, baina denek Txokolatene deitzen zioten. Ondarretako kartzelatik 100 metrora zegoen. 18 urte arte bizi izan zen baserrian. Gero, perrategi batean hasi zen lanean, Martin Arizetarekin; ganadua perratzeaz gainera, baserriko tresnak ere konpontzen zituzten, goldeak eta. Balkoietako barandak ere egiten zituzten. Ondoren El Leon garagardo lantegian hasi zen lanean, Teodoro Kutz zuela nagusitzat. Kamioiarekin garagardoa partitzen ibiltzen zen, lehenengo Donostiako tabernetan eta gero kanpoan ere bai. Antiguan gutxienez sei sagardotegi bazeudela dio. Antton anaiarekin egin diogu elkarrizketa Joxe Mariri (argazkian, ezkerrekoa).

Zintak

DON-020

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia - Zabala, Edurne
- **Data:** 2009-09-24
- **Iraupena:** 80 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Sagastizar edo "Txokolatene"

- **Erref:** DON-020/002
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:01:17. **Bukatu:** 00:04:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Sagastizar baserrian jaio ziren, "Txokolatene" bezala ere ezaguna. "Txokolate" deitzen zioten Anttoni. Aitona oriotarra zuten, eta "Txokolate" hango arraunlari famatu bat zen. Baserria non zegoen, Ondarretako kartzelaren ondoan. Errentan zeuden; lurak norenak ziren.

2. Konporta erreka; Portuetxe

- **Erref:** DON-020/005
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:06:01. **Bukatu:** 00:07:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

Konporta erreka itsasora joaten zen. "Konporta" izena nondik datorren. Aspaldiko garaietako kontuak: Portuetxeko ume bat txalupan eraman zutela bataiatzera, itsasoa haraino iristen zelako.

3. Lehengo Antigua: etxe gutxi eta lantegi asko

- **Erref:** DON-020/006
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:07:18. **Bukatu:** 00:09:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Zortzi apaiz zeuden Antiguan, eta biztanle gutxi. Erriberak. Lantegi asko zeuden, eta etxe gutxi. El Leon garagardoak, disko lantegia, Suchard, Lagarto xaboia... Txalupallene baserria.

4. Baserritik gertu, kortse-denda

- **Erref:** DON-020/010
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:09:57. **Bukatu:** 00:11:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

Kortse-denda 1927an egin zuten; Corso anaiena. Kortseak egiten zituzten, 50-60 bat emakumek. Gero, gerra etortzean, soldaduentzat traje militarrek egin zituzten.

5. Joxe Mari, perratzaile lanetan

- **Erref:** DON-020/011
- **Iraupena:** 0:04:46. **Hasi:** 00:11:28. **Bukatu:** 00:16:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

<p>Joxe Mari 18 urte arte baserrian ibili zen lanean. Anttonek bost urte egin zituen soldadutzan. Martin Arizetan ibili zen lanean, perratzen eta baserriko tresnak konpontzen. Gero, El Leon garagardo lantegian txofer. Ferratokia, ferra motak. Haize-orratzak ere egiten zituzten. Hauspo elektrikoa. Codinako etxeetako barandak.</p>

6. El Leon garagardo lantegian txofer

- **Erref:** DON-020/012
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:16:14. **Bukatu:** 00:20:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>El Leon lantegian, txofertzan. Hasieran ez, baina gero Zaragozara, Madrilera... toki askotara. Galiziara trenez ere eramaten zuten garagardoa, udaberrian. Kamioi gutxi zegoen hasieran. Fiat. Mantsoak ziren. Bideko bazkariak nolakoak ziren.</p>

7. El Leon lantegian ehundik gora langile

- **Erref:** DON-020/013
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:20:07. **Bukatu:** 00:23:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

El Leon lantegian ehundik gora langile zeuden. Izotza ere egiten zen. Fruta kamarak zeuden. Limoi-ura ere egiten zen. Casera. Garagar motak. Don Teodoro Kutz, nagusia. Lupulua Alemaniatik ekartzen zen, zaku handietan prentsatuta. Artikutzako ura erabiltzen zen garagardoa egiteko. Lourdes Txikitik etortzen zen ura botilak garbitzeko erabiltzen zuten.

8. Kutz familiaren kontuak

- **Erref:** DON-020/016
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:26:20. **Bukatu:** 00:30:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak

Laburpena:

Teodoro eta Juan Kutz anaiak alemaniarrek ziren. Bibotea zuen Teodorok. Kanalak zeuden, eta marea igotzean itxi egiten zen. Aitarekin berriketan egoten zen Teodoro. Non bizi ziren. Bizkar gainean eramandako azken gorpua. Don Fernando eta Juanito semeak. Juanito elefante ehizan ibiltzen zen eta moto lasterketetan.

9. Antiguako tabernak eta sagardotegiak

- **Erref:** DON-020/019
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:30:43. **Bukatu:** 00:32:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Tratamenduak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Tabernak eta sagardotegiak beti izan dira Antiguak. Sagardotegien izenak, sei-zazpi baziren. Basoerdia 10 zentimora. Sagardotegira joateko ohitura zuten. Eskolan adin askotakoak elkarrekin ibiltzen ziren. Paco Maturanak erakutsi zion argazkiari buruzko komentarioak egiten ditu Joxe Marik, Antton anaiari hika hitz eginez.</p>

10. Ondarretako eskolan; doktrina

- **Erref:** DON-020/020
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:32:44. **Bukatu:** 00:34:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Euskararen egoera

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Ondarretan bertan ibili ziren eskolan, Don Jose Lopez maisuarekin. Nesken maistra Pacita Sistiaga zen. Doktrina euskaraz ikasi zuen Joxe Marik, Anttunek erdaraz. Anttunek apaizak esaten ziena errepikatu du.

11. Doktrina eta fedea

- **Erref:** DON-020/022
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:35:10. **Bukatu:** 00:36:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Doktrinara joaten ziren. Nork erakusten zuen. Don Jose Lopez gizon jatorra zela dio Joxe Marik. Don Tomas. Fededunak izaten jarraitzen dute.

12. Umetako jolasak: uztaia, pilota...

- **Erref:** DON-020/024
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:36:45. **Bukatu:** 00:38:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak: uztaia, pilota... Lourdes Txikin frontoia zegoen eta Satrustegin ere bai... Hondartzan, baloiarekin. Gerra denboran baloirik ere ez zuten. Anaia "Principe de Gales" zela dio Anttunek; ondo bizi zela, alegia.

13. Baserria kartzelaren ondoan

- **Erref:** DON-020/026
- **Iraupena:** 0:04:13. **Hasi:** 00:40:07. **Bukatu:** 00:44:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Joxe Mari ez zen soldadu joan, aitzak 60 urte zituelako eta Antton ezkondu egin zelako. Etxez etxe esnea partitzen zuten. Ondarretako kartzelako kontuak: ama seietako mezetara joaten zenean, fusilamenduak entzuten zituen.</p>

14. Ondarretako kartzela I

- **Erref:** DON-020/027
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:44:20. **Bukatu:** 00:46:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Hondarretan jolasten ibiltzen ziren, kartzela ondoan. Soldadu batek preso bati tiro egin ziola ikusi zuen Joxe Marik. Toki askotako presoak zeuden; libre utzi zituztela esan eta hil egiten zituzten batzuk.</p>

Transkripzioa

- Gu lehen esan dizudan bezela, hondarrian jolasten no? Koadrilla haundiya jolasten, ta beste batzuk begira ta zerian ta. Zian rejak, itsaso aldetik zian txikik leiyuak, ta gu han jolasten ta bat han goitik begira, rejak begira, ta soldadua o ordun soldaduk eta asko zian reketiak eta zian boluntariyuak, bueno, gerra denbora o zea zan, ta jun da jende... Klaro, harrek ez zun ikusten bestia, ta gure ondolik nola tira zion tirua. Ta ez dakigu jo zun o ez zun, ez da ikusten [...]. Hor zeon Satrustegiko porterin, Sistiagatarrak zian, Sistiagatarrak eta...

- Porteri zer, ataka moduko bat zan?

- Bai, bai, oaindik, oain botia do, etxia're botia do, baiña hor zan, ta hor eiten zittun bazkaiyak eta asko eiten zittun, ta amak eta guk igual eskolatik atera ta eramaten genitun, laguntzen geniyon, kartzelako jendiantzako. Asko zian oñatikuak o... Representante bat fabrikakua hor kartzelan egondua zan. Jende asko zan, ta eramaten zan ba bazkariyak ba hemen Igeldoko bat mutua zan, Igeldoko bat, lehenguan eondu nintzan billobakin, ta hua're kartzelan eraman, ta janakin o jun dian, ta "ez, ez, libratua dao, ez dao ya hemen". Ta hilda. Holaxe izandu da mundu hau.

15. Ondarretako kartzela II

- **Erref:** DON-020/028
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:46:19. **Bukatu:** 00:47:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Ondarretako kartzelan fusilatu zituzten batzuen kasua kontatzen du Anttonek.</p>

16. Ondarretako kartzela III

- **Erref:** DON-020/029
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:47:26. **Bukatu:** 00:50:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Zarata gutxiago ateratzeko, presoak matxetearekin hilko zituztela esan omen zion neska bati erreketek batek. Uzkudun boxealariaren kontuak: falangista jantzita ibili zen Donostian. Salbatu ere egin ote zituen batzuek. Matxain toka jokalararen anaiak nola egin zuen ihes.</p>

Transkripzioa

- Hor lehen ere esaten hasi naiz ta, hor eoten zan neska, emakume bat, ez dakit Tolosakua o nungua zan ta eoten zan laguntzen, neskame egoten zan hor zeian. Ta gaztiak eta lehen esan dizugun reketiak eta haik'e gaztiak eta neska horrekin, bakizu, gaztiak zer dian, hizketan ta zeian. "Bai, bart arratsian'e in dezue zeian" eta esan emen ziyon, "ba gaur gabian matxetez hilko ditugu hor! Soiñuik atera gabe". Halaxe zan. Ni eskolan hamaika urterekin geatu nintzan, esaten diyozun bezela, hauek soldadu eramanda. Ta orduan ein zazu Francoen jendia, Uzkudun aitua izango zenduen, boxeadoria izandua, Uzkudun, [...] ta hua falangista jantzia zeian, ta falangistakin, ta kartzela aurrian. Ta esaten zuen, esaten zuen, nik ez nun ikusi, ta ez dakat esateik, ta ukabilka're hil izandu ditula. Esaten zuen, nik ez det ikusi. Baiño falangistak han zien, bai.

- Bai, tanke baten giñian exerita sartu zan Donostira. [...] Baiño harrek ez dakit beak [...] ez zun, baiño salbatu asko. Zepai bertsolaiyan oso laguna zan, ta Zepain bitartez askoi biziya salbatu ziyen e?

- Zenek?

- Uzkudunek.

- Salbatuko zizkin bere aldekuak! Nik ez dit esaten, esaten zuena. dana txarra dunik ez dik. Baiño hua zeian sartu zienian, ta nere laguna hil zan: Lasarte, Pedro Lasarte. Ta hoik zian txirain, oain bado zea, "Txirain berri" sozidadia edo hor Antiguan, hor harren izenetik eta zeian. Haik goiko baltzara, Aiete goiko baltzara ta juten zian jolasea ta zeian, ta nola etorri zan Uzkudun hoi beste batzuekin ta "hi!"... Harek hizketa zun boxeadoriak dun.... Hola hitz eiten zun harrek, eta "hi! Tximino, tximino, apaiza nun zioke? Apaiza nun zioke?", ta apaiza elizan aurrian, han Aieten, ta apaiza nun dan. Apaizak alde iña. Baiña apaizan billa. Haik harrapatu bazuen apaiza, zea ingo ziyoten haik, hil.

(E)- Apaizan billa?

- Apaizan billa.

- Hiltzeko.

- Ez, zea, zea iteko! Zea hor bestia famatua zan bertsuak eta jartzen zitun zeak beste, kauen, zein zun bere izena,...yo! Nola zan, tokaiya... Matxain! Matxain. Ta anaiyan billa anaiyan billa ta jun, eta ate batetik eta goi etxian atzetik salta in ta artuak (udara, klaro, udara izango zan ta), arto tartetik eta nunbait alde in ta ez zuten harrapatu. Gero Frantzin hil zala uste det hua, anaiya. Frantzia edo alde egin zun.

17. Bandera espainola jarri beharra

- **Erref:** DON-020/030
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:50:58. **Bukatu:** 00:52:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Jesusen Bihotzari bandera espainola jarri ez ziolako, kartzelara eraman zuten emakume bat. Soldaduak Txokolatenera joaten ziren gosaltzera. Beldurra.

Transkripzioa

- Hemen segitu ziyon. Hemen ikusi ditugu hor oain ya etxia hor dao zutik, gure basarriya zagon ondo hortan, etxia badao hor, aldapa hasten dan hor, eskubitan. Ta Jesusen Biyotza egunian jartzen zan maindire zuri batekin o jartzen zan Jesusen Biyotza. Ta hala jarri, ta Espaiñiko zeakin jarri ez zulako, kartzelara eraman zuen. In zazu kontuk ze edade izango zun: semia soldadu zun, ta ama kartzelan horrengatik, eta semia guardiya iten, hemen Ondarretan. Esaten dezu ze ezautu ditugun hemen. Esaten dian guztik gutxi dia. Tranbiak buelta iten zun hor, ta gu hamaika urtekin geatu nintzan ta... lehen. Handik bizi dek Jexux, nere edadekua dek, eta odol-arastuak. Ze ikusi dittugun hemen...
- [...] eondu zian falangistak, ta gure etxea etorri zian ta gosaldut gure etxian iten zuen, kafesne-zopak edo ematen ziyen, ta gero hurrungo egunian, guardia in zuenak, beste batzuk. Danak txokolate jaten zuen. Danak.
- Ta bildurak, bildurak akabatzen.

18. Funikularrerraino zihoan tranbia; Igeldo

- **Erref:** DON-020/031
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:52:26. **Bukatu:** 00:54:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

<p>Kartzela inguruan bidea zegoen. Tranbia pasatzen zen handik. Igeldora asko joaten ziren, sanpedroetan eta. Garai batean karabineroen etxea zegoen Igeldon, eta euskaraz ikasten zuten. Oso euskalduna zen Igeldo.</p>

19. Antiguako bertso giroa; 'Lexo'ren bertsoak

- **Erref:** DON-020/033
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:54:22. **Bukatu:** 00:56:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

<p>Uztapide eta Zepai bertsolariak garagardo

lantegian ibili ziren lanean; Konportan zeuden apopilo. Tabernara joan, eta kantuan hasten ziren. Juan Jose Sarasola Lexo bertsolariaren hiru bertso erreztatzen ditu Joxe Marik.</p></div>

- **Erref:** DON-020/034 - **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:56:47. **Bukatu:** 00:59:42 - **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza - Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

<p>Uztapide eta Zepai bertsolarien kontuak. Lexobertsolaria. Txirrita ere ibiltzen zen Antiguan. Txirritaren bertsoa kantatzen du Joxe Marik, eta Anttonek pasadizo horren gaineko azalpenak ematen ditu. Bertso gehiago.</p></div> - **Erref:** DON-020/036 - **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:00:10. **Bukatu:** 01:01:25 - **Multimedia:** bideoa online ikusgai - Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra - Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak Arrantzale gutxi zegoen Antiguan; moilan zeuden arrantzaleak. Hanka-hutsik ibiltzen ziren; beraiek ere bai erriberetan. "Cariño" esaten ziotena ere beti oinetako gabe.

Transkripzioa

- Arrantzaliak?

(E)- Bai.

- Hemen ez da arrantzaleik, hola itsasuan ta ibili danik eta ez dao.

Kaiñabelakin ta hemen bazian batzuk zeian ta ibiltzen zianak, Ondarru ta, baiño hemen inguruan...

- Gure gazte denboran arrantzaliak danak kaiyian hankutsik ibiltzen zian, hankutsik.

(E)- Hankutsik?

- Ta ni're bai, beti, erriberan beti hankak bustitzen zian ta beti hankutsik.

- Hemen basarri txiki bat bazan hor, zea, "Barraka" deitzen geniyon, ta mutilla haziya zan, "kariño" geitzen giñon. Zan Pedro zun izena, ta hua beti hankutsik ibiltzen zan: kalia ta zeian, ta beti hankutzik ibiltzen zan. Ta honen edadekua e? Ez da... Honen adiñekua zan. Ta gu're bai, ta aita ta're bai, ta baratzan ta gu're bai oiñutsik asko ibiltzen giñan. Ez oiñetakoik ez gendulako, e? Baiño, ohitura... Hondar-lurrak zian hemen, hondarra bezelako lurrak eta zian. Ta aixa ibiltzen zan.

(E)- Hori baratzarako ona izaten da hondar pixka bat ez? Lurra...

- Bai, lur ariñak, lur ariñak dia, bai.

22. Ramon bainulariaren kontuak

- **Erref:** DON-020/037
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 01:01:25. **Bukatu:** 01:02:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

<p>"Cariño"ren anaia Ramoni buruzko kontuak. Behia umea egiteko zegoenean, Antton joaten zen laguntzera. Bañero eta txofer ibiltzen zen hura. Anttonek pena zuen ez ziolako igerian erakusteko esan.</p>

23. Bereziartua gotzaina, familiakoa

- **Erref:** DON-020/039
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 01:04:59. **Bukatu:** 01:05:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Don Lorentzo Bereziartua gotzaina familiakoa zuten. Anttoni jauna eman zion behin.

24. Etxe inguruko iturriak eta askak

- **Erref:** DON-020/041
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 01:06:33. **Bukatu:** 01:09:34

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Lanbideak » Etxeginak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Kanilako urik ez zuten etxean. Iturrira joaten ziren ur bila, baldearekin. Donostia Igeldoko harriarekin eginda dago; aita harria jaisten ibiltzen zen idiarekin. Aska zegoen etxe ondoan. Konportako iturria. Erreketen nafarrak etorri zirenean, gerra garaian, mesfidati gerturatu ziren iturrira ura edatera. Igeldoko dorretik ikurrina kenarazi zuten.

25. "Txerri-munik" ordainetan

- **Erref:** DON-020/042
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 01:09:34. **Bukatu:** 01:12:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Baserrian behiak zituzten, idiak, zaldiak eta txerri mordoa, gizendu eta saltzeko. Urtean hiru-lau ere hiltzen zituzten. Gatzarekin jartzen zituzten txerriak. Solomoa eta gibela freskotan jaten ziren. Odolkiak. "Txerri-munik ordainetan". Mokadurik goxoenak apaizari.</p>

26. Antiguako apaizak

- **Erref:** DON-020/044
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 01:13:04. **Bukatu:** 01:13:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Denetarikoa apaizak zeuden. Don Jose Sukia, Don Enrike... Don Balentinek hogei minutuan ematen zuen meza.

27. Antton itzain trebea, ordekan zein aldapan

- **Erref:** DON-020/046
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 01:14:00. **Bukatu:** 01:17:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Baserri erosoia zuten, lur onak, lauak. Karroa. Anttonek itzain lanei buruz dihardu: ordekan itzain ibiltzea erraza zela esan zion batek, baina gero hari aldapan lagundu zion. Idi parek saldu, 4.000 pezetan; erosleak mandiora ezin sartu, eta berak sartu zituen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-05-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com